

2018ko ELKANOREN LEHORRERATZEAN PARTE-HARTZEKO IRIZPIDEAK

Udal Gobernuaren erronka izan da Elkanoren lehorreratzean herritarren parte-hartzea sustatu eta zabaltzea.

Helburu hori lortu nahian, lehen urratsa egin zen 2014ko lehorreratzean; hala, kontinenteak ordezkatzeko zituzten emakumeak, lehenengo aldiz, zozketa bidez aukeratu ziren.

Bide horretan sakonduz, 2018ko lehorreratzean irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 1. Genero-ikuspegia.

Pertsonaia historikoei (Elkano eta tripulatzaileak) dagokienez, haien generoari eutsiko zaio.

Historikoak ez diren pertsonaiei (kontinenteetako ordezkariak, lantzariak eta karroza laguntzaileak) dagokienez, berriz, ez da genero-bereizketarik egingo.

- 2. Parte-hartzaileak zozketa bidez aukeratuko dira.

Tripulatzaile berriak zozketa bidez aukeratuko dira aurrerantzean. Aurtengo lehorreratzean, 2014ko tripulatzaileek jarraituko dute, oro har, baina tripulatzaile berriak zozketa bidez aukeratuko dira; aurten, hain zuzen, 2 tripulatzaile berri sartuko dira era horretan.

Tripulatzaile berria izateko, bi baldintza hauek bete beharko dira: 18 eta 35 urte bitartekoak izatea, eta, itxura fisikoari dagokionez antzeztuko den pertsonaiaren egoerari dagokion gorpuzkera izatea.

Bestalde, kontinenteetako ordezkariak, lantzariak eta karroza laguntzaileak ere zozketa bidez aukeratuko dira (Berdintasunerako Legearen irizpideak beteko dira). Tripulatzaileen kasuan bezala, 2014ko karroza gidariek aukera izango dute aurtengo lehorreratzean parte hartzeko.

- Zozketa-prozedura:

Izena emateko, 4 zerrenda irekiko dira (tripulatzaileak, kontinentetako ordezkariak, lantzariak eta karroza gidariak), eta pertsona bakoitzak zerrenda batean baino gehiagotan eman ahal izango du izena.

Izena emateko epea apirilaren 9tik apirilaren 23ko 13:00ak arte izango da.

Izen-ematea udaletxean edo turismo-bulegoan egin daiteke, edo, bestela, eskaera-orrria helbide elektroniko hauetara bidaliz: kultura@getaria.org eta turismo@getaria.org

Izena emateko, eskaera-orkiak bete beharko dira; bertan zehatz-mehatz azaltzen dira bete beharreko baldintzak. Hauek dira baldintza nagusiak:

- 1983 eta 2000 urte bitartean jaiotakoak izatea (biak barne).
- Getarian errolatuta egotea (gutxienez, 2018. urtearen hasieratik) edo Getarian jaiotakoa izan eta kanpoan bizi zea.
- Kontinenteen ordezkarien kasuan, aurrez karrozan atera gabea izatea.

OHARRA: zozketa egunean 18 urte bete gabe dituztenek guraso edo tutoreen baimena aurkeztu beharko dute.

Zozketa apirilaren 28an, eguerdiko 12:00etan, egingo da udaletxeko Pleno Aretoan. Zozketa jendaurrean izango da.

Getarian 2018ko martxoaren 21an. 2018ko Elkanoren lehorreratzeko mahaia.



Getariako Udala